

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

UEPE H1 ekipamendurako gauzatze-unitate publikoa arautzeko Erdi Aroko Hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren 14. Xedapen-aldaketaren Proiektuari behin betiko onespena ematea, Ruiz de Bergatarren jauregia barne har dezan

Hauxe erabaki zuen udalbatzak 2020ko apirilaren 24an egindako ohiko bilkuran:

Gaia: UEPE H1 ekipamendurako gauzatze-unitate publikoa arautzeko Erdi Aroko Hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren 14. Xedapen-aldaketaren Proiektuari behin betiko onespena ematea, Ruiz de Bergatarren jauregia barne har dezan.

Erabaki-proposamena

Ikusirik UEPE H1 ekipamendurako gauzatze-unitate publikoa —Ruiz de Bergatarren jauregia— erregulatzea xede duen Vitoria-Gasteizko Erdi Aroko hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren hamalaugarren aldakuntzaren proiektua, udal zerbitzu teknikoek idatzia, kontsiderazio hauek egiten dira:

Errementari kaleko 30. eta 32.eko eraikina dela eta proposatutako Erdi Aroko hiriguneko BIPBaren xedapen-aldakuntzaren helburua da bertan ekipamendu bat —itxura batean Gasteiz Antzokia— instalatzeko egindako aldakuntzei babesa ematea, eta eraikina eraberritu eta handitu dadila ahalbidetzea.

Vitoria-Gasteizko Erdi Aroko hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziak aurreikusten du UEPE H1 ekipamendurako gauzatze-unitate publikoa garatzea lehen laurtekoan, eta, hain zuzen ere, 2007an ekin zitzairen Ruiz de Bergatarren jauregia sendotu, eraberritu eta handitzeko obrei, bertan ezartzeko kultura-ondarea kudeatzeko Arabarri foru-sozietatea eta beste foru-enpresa publiko batzuk jartzeko bertan, udalak eta foru-aldundiak horretarako sinatutako hitzarmenaren barruan.

Aldameneko Zapatari kaleko 33.eko higiezinean ere esku-hartzea aurreikusten zen obrak J. B., S. B., J. C. M. eta L. Z. arkitektoen proiektuaren arabera hasi ziren, 2007ko apirilaren 17an emandako obra-lizentziaren babesean, aldezturik, 2006ko abenduaren 1ean, Hirigintza eta Ingurumen foru-diputatuak baimena eman zuelarik, 2007 Foru-aginduan jasota dagoenez, eta jauregiaren barruko patioa estali zen, zein jabari publikoko eta sarbide mugatuko espazio libre gisa baitzegoen sailkatua, eta jauregiaren barrualdea eraberritu zen, zein 'izaera estrukturaleko eraikinak / erdi mailako babeseko elementuak' multzoan baitzegoen sailkatuta, eta Errementari kaleko fatxada bakarrik errespetatu zen, altuera murriztuz.

2008ko abenduaren 12an lizentzia berri bat eskatu zen, jauregiaren hegoaldeko hegalaren bolumetria handitzeko, eta orobat handitzeko eta birbanatzeko Zapatari kaleko 33.ean okupatu beharreko espazioak. 2009ko maiatzaren 20an, eskabidea onartzearen aldeko txostena egin zuen Ondare Historiko Artistikoaren Foru Zerbitzuak, baina lizentzia ez zen eman azkenik, obrak bertan behera geratu zirenez, nahiz eta bitarte horretan jauregiaren hegoaldeko hegal horren bolumetria handitzea gauzatu zen.

Eten egin ziren obrak, eta abandonatuta geratu ziren, harik eta, berriki, udal korporazioak, eraikinaren jabetza berreskuratu ondoren, proiektua berregin eta berriro ekitea erabaki duen arte, eta erakina ekipamendu sozio-kultural baterako, Gasteiz Antzokia bertan jartzeko, erabiltzea, dagokion proiektua idatzi ondoren. Hauek dira egin beharreko obrak: eraberritze estrukturala, tarteko solairu bat gaitzea jauregiaren patioaren gainean, eta barruko espazioen birmoldaketa sakona, bolumetria eta irudia aldatu gabe.

Egindako obrak erregularizatu, planeamendua horietara egokitu eta aurreikusitako proiektua gauzatzekotan, aldakuntza hauek egin beharra dago plan berezian:

– Lurzatiaren kalifikazio urbanistiko xehatua aldatu, gaur egun 'administrazio-ekipamendu' baita, lehenago aurreikusitako destinoaren arabera, eta ez baitator bat orain proposatzen denarekin.

– Jauregiaren barruko patioaren zati bati emandako jabari publikoko eta erabilera murriztuko espazio librearen kalifikazioa kendu —duela gutxi egin ziren eta gorago deskribatu diren obrak egin zirenean estali baitzen patio hori—, aurreikusitako beharren programari leku egiteko.

– Eraikinaren katalogazioa aldatu, gaur egungo EPMtik —izaera estrukturaleko eraikinak / erdi mailako babeseko elementuak— PB-Hra —ingurumen-izaerako eraikinak (izaera historikoko eraikinak) / oinarrizko babeseko elementuak, historikoak—, ORE-OE2 berreskuratze-ordenantza ordenantza aplika dadin hartara, eta ez lehenago indarrean zegoena, OCE-OE1 kontserbazio-ordenantza, estuagoa.

– Zapatari kaleko 33.eko aldameneko bloke osora zabaldu erabileren bateragarritasun-erregimena, bizileku eta ekipamendu artekoa, orain beheko solairurako eta lehen solairuko parte baterako bakarrik aurreikusten dena, bai premien programari leku egiteko, bai lehendik egindako esku-hartzea legezatzeko.

– Dokumentazio grafikoan, jauregiaren okupazio- eta altuera-parametroak jada gauzatuta dagoenera moldatu.

Gainera, proiektu honi eragiten dion plan bereziko kontraesan bat konpondu beharra dago. Hain zuzen ere, ekipamendu anizkuna kalifikazioa baliatzen da dokumentazio grafikoan, dagokion ordenantzan horren deskribapenik izan gabe, eta bai aurreikuspenekiko kontraesanik.

Hauek dira aldakuntza honetan proposatutako aldaketak:

– Hirigintza-araudian, honela definitzen da ekipamendu anizkunaren erabilera xehatua: ekipamendu komunitarioaren erabilera globalaren barruko erabilera xehatuen edozein konbinazio (14. artikulua).

– Hirigintza-araudian, Zapatari kaleko 33.eko higiezin osoari aplikatzen zaio ekipamendua toleratzen duen bizitegi-erabilera, eta ekipamendu horren izaera ez da arauan zehazten, ezpada dokumentazio grafikoan (68. artikulua).

– Kendu egiten da Errementari kaleko 30.eko patioa babestu beharreko ondasunen katalogoko espazio libreen katalogotik.

– O-2 planoan —Eraikuntza-katalogoa—, aldatu egiten da eraikinaren katalogazioa (EPMtik PB-Hra), eta jauregiaren okupazioa eta solairu-kopurua egungo errealitatera moldatzen.

– O-3 planoan —Espazio libreen katalogoa—, kendu egin da jauregiaren patioa.

– O-4 planoan —Zonifikazioa - Kalifikazio xehatua—, Errementari kaleko 30.eko patioa kentzen da, jabari publikoko eta erabilera murriztuko espazio libre gisa, eta ekipamendu anizkun gisa kalifikatzen administrazio-ekipamendu gisa kalifikatutako Errementari kaleko 30.eko eta 32.eko higiezinak.

— O-8 planoan — Hegoaldea - Eraikuntzaren eta espazio libreen antolamendua. Lerrokadurak eta sestrak—, jauregiaren patioa kentzen da, eta errealitatera egokitzen jauregiaren okupazioa eta altuera.

— O-12 planoan — Antolamendu-proposamenak—, C5 epigrafearen barruan jauregiari administrazio-ekipamenduaren kalifikazioa aitortzen dion legenda aldatu da, ekipamendu anizkunerara pasatuz.

— Bakarrean batu dira Errementari kaleko 30.eko eta 32.eko higiezonei dagozkien hirigintza-fitxak, eta gauzatutakora egokitu horietako parametroak.

Udal teknikariek idatzitako oroitidazkian hauke agiri dira: xedea, komenigarritasunaren eta egokitasunaren justifikazioa, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioa, eragin akustikoaren azterlana egiteko premiarik eza, eragin soziolinguistikorik eta genero-eraginik eza, baita indarrean dagoen planeamenduari eta aldatuari dagozkien hirigintza-araudia, antolamendu- eta kudeaketa-eremuak eta dokumentazio grafikoa ere.

Ingurumen-tramitazioari dagokionez, udal zerbitzu teknikoek jakinarazi dute Estatuko Ingurumen Ebaluazioaren Legearen eta Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Legearen arabera aldakuntza ez dagoela ingurumen-ebaluazioari lotua, ez baitu plan edo programa baten izaera, ezpada plan baten aldakuntza batena —oso txikia, xedeari nahiz esparruari dagokionez—, eta ez planak ez horren aldakuntzak ez baitute legez ingurumen-ebaluazioaren menpe egon behar duten proiektuak aurrerago baimentzeko esparrurik ezartzen, eta ez diote eragiten lurzoru urbanizaezinari, ezta Natura 2000 Sareko edo nazioarteko hitzarmenen edo natura-ondareari edo biodibertsitateari buruzko oinarritzko legediaren edo autonomia-erkidegoko natura zaintzeko legediaren aplikazioz emandako arau-xedapen orokorren ondorio den ingurumen-babesaren arloko inongo erregimeneko espazioei ere.

Txostenak eskatu zaizkie Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiari eta Eusko Jaurlaritzako Kultura, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailei.

Aurtengo martxoaren 12an, Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren aldeko txostena jaso da.

Gaur egun, igarota da Euskal Kultura Ondarearen Legearen 47. artikuluan araututako epea, bi hilabetekoa, eta, hortaz, prozeduraren tramitazioarekin jarraitu daiteke, nahiz ez den jaso Eusko Jaurlaritzako Kultura, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailei eskatutako txostena.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko irailaren 20an egindako bilkuran eman zitzaion onespena planari, eta hasierako onespena Plan Orokorraren hasierako aldakuntza horri, idatzitako proiektuarekin —dosierrean jasota dago— bat etorritz.

2019ko urriaren 23an argitaratu zen erabakia ALHAOn (123. zk.), baita El Correo Español-El Pueblo Vasco egunkariaren 2019ko urriaren 9ko Arabako edizioan ere, eta hogeiei egunez egon da jendaurrean jarrita aldaketari buruzko dokumentazioa. Denbora horretan entitate edo pertsona interesdunek ez dutenez inolako alegaziorik aurkeztu, izapidearekin aurrera jarrai daiteke.

Aplikagarri den legediari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 61. eta 62. artikuluek zehazten dituzte plan orokorraren eduki substantiboa eta eduki hori gauzatzeko beharrezko den gutxieneko dokumentazioa. Beraz, plan orokorraren aldaketak antzeko dokumentuetan formalizatuko dira, edukia aldaketaren xedera egokituta.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 69. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen da plan berezien esparrua eta edukia, eta 95., 96. eta 97. artikuluetan arautzen plan partzial eta berezien tramitazioa eta onespena.

Eusko Jaurlaritzaren Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak arautzen du Euskal Autonomia Erkidegoko ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketan erregimen juridikoa, eta orobat zehazten du birgaitze-jarduketan kontzeptua.

317/2002 Dekretuaren 10. artikuluan daude araututa birgaitze-plan bereziak, eta plan berezien motetako bat direla adierazten, lurzoruaren erregimenaren eta hiri-antolamenduaren arloan indarrean dagoen araudiaren ildotik, eta delako legean eta hori garatzen duten araudietan nahiz horiek ordeztzen dituzten arauetan xedatutakoari lotuak daudela, baita dekretuan bertan berariaz adierazitakoari ere.

Birgaitze-plan bereziak hiri-antolakuntzaren tresna xehatuak dira, birgaitze integratuko eremu bat deklaratzeko dosierra abiarazi den hiri-lurzoruko eremuetan plan orokorren edo arau subsidiarioen kalifikazio globalaren zehaztapenak garatzeko, eta, beren zehaztapenen artean, aipatutako dekretuaren 10.1 artikuluan definitutako administrazioaren ekintza berezia osatzen duten neurriak planifikatzeko aukera emango dutenak jaso behar dituzte.

10. artikulua horretan adierazten denez, administrazioaren ekintza bereziak hiri-ehuna babes-tea, kontserbatzea, leheneratzea eta hobetzea dakarten birgaitze babestuko jarduketak hartzen ditu barne, baita perimetroan dagoen ondare urbanizatu eta eraikia balioestea eta egokiago erabiltzea ere, horrela, dagoen populazioa mantentzea, bizi-baldintzak hobetzea eta, bereziki, etxebizitzaren kalitatea hobetzea eta komunitatearen ekipamenduak eta aurreko helburuekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoak indar daitezela lortzeko.

Udalbatzari dagokio hirigintzako legediak aurreikusitako planen nahiz bestelako tresnen udal tramitazioari amaiera ematen dion onespina ematea, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak—Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriak buruzko 57/2003 Legeak osatua— 123.1.i artikuluan ezarritakoaren ildotik.

Proposatzen den antolamendu aldakuntzarekin bat etorritik, dosierraren parte diren hirigintzako agiriekin haren beharra eta egiteko egokiera justifikatzen baitute, Toki Jaurbidearen Oinarriak buruzko 7/1985 Legeak abenduaren 16ko Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriak buruzko 57/2003 Legeak osatua 122.4.a) artikuluan aitortzen dion aginpidea baliaturik, Lurralde Batzordeak erabaki hau aurkezten dio Udalbatzari:

Erabakia

1. Udal zerbitzu teknikoek 2019ko irailean idatzitako Vitoria-Gasteizko Erdi Aroko hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren hamalagarren aldakuntzari behin betiko onespina ematea, Vitoria-Gasteizko Erdi Aroko hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziak UEPE H1 ekipamendurako gauzatze-unitate publikoa —Ruiz de Bergatarren jauregia— erregulatzeko.

2. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

3. Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahalko da zuzenean Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikularekin bat etorritik.

Dosierreko dokumentazio teknikoaren esteka honetan dago eskuragarri: www.vitoria-gasteiz.org/peri1-14modif

ALDATUTAKO ARAUDIA

14. artikulua. Zona-banaketa Aurreko kalifikazioak kontuan hartuta, Plan Bereziaren eremua zonifikazio batean azpizatitu da eta erabilera xehatuak egokitu zaizkie bere hirigintza-erregimena arautze aldera

- Komunikazio- eta garraio-sistema.
- Bide-sarea (kaleak eta kantoiak).
- Aparkaleku publikoa.
- Espazio libreen sistema.

- Berdegune publikoak.
- Jabari eta erabilera publikoko espazio libreak.
- Jabari publikoko eta erabilera murriztuko espazio libreak.
 - Udal etxarteak: egungo etxartea gehi eraikuntzak, patioak eta baratzeak. Jabari publikoko ondareen jabetza berreskuratzea (1372/86 EDaren —Toki Entitateen Ondasunei buruzko Erregelamendua— 70. eta 71. artikulua).
 - Jabari publikoko eta erabilera murriztuko espazio libreak.
 - Ekipamenduei atxikitako espazio libreak.
 - Espazio libreak, lorategiak eta baratzeak.
 - Jabari publikoko eta erabilera murriztuko espazio libreak.
 - Erronda-pasabidea, R, S eta T etxadiak.
 - Espazio libre pribatuak, babes-maila gordeta (bide-zorra, 1, 2 eta 3 etxadiak).
 - Katedralaren gida-planari lotutako espazio libreak.
 - Espazio libre pribatuak.
 - Sistema eraikia.
 - Bizilekua.
- Erabilera-aldaketa onartzen du berritzeko nahiz kontserbatzeko eraikuntzako esku-hartze motari dagokionez, oinarrizko babeseko elementuetan.
 - Bizilekua.
- Ekipamendu generikoa toleratzen delarik, ekipamendu generiko bihurtzeko aukerarekin.
 - Bizilekua -Tertziarioa.
- Erabilera-aldaketa onartzen du kontserbatzeko nahiz biziberritzeko eraikuntzako esku-hartze motari dagokionez, Landatxoko gauzatze-unitatean.
 - Tertziarioa.
 - Ekipamendua.
- Asistentzia, osasuna, kultura eta elkarteak, hezkuntza, kirola, erlijioa, administrazioa, generikoa, kultura eta erlijioa, ikuskizunak, unibertsitatea, zuzkidura-bizitokia edo askotakoa (indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 5.03.24 artikuluan komunitate-ekipamenduaren erabilera globalean sartzan diren erabilera xehatuen edozein konbinazio).
 - Landatxo hegoaldeko gida-plana.
- Hirigintza-araudi honen 75. artikulua araberako erabilerak.
- Ekipamenduaren egoera eta ezaugarriak, baita aparkaleku erabileren kalifikazio bikoitzak ere —beste erabilera batzuekin batera—, orobat adierazten dira aipatutako kalifikazio-planoan, ohar hauekin:
 - S. G. Sistema orokorra.
 - O Lehendik dagoena.
 - C Beste erabilera batzuekin partekatua.
 - BR6 Sestra azpian.
- Beheko solairua gehi tarteko solairua – Z etxadia (Aihotz plazako 2, 3, 4, 5, 6 eta 7).
- Landatxoko aparkalekuaren lurpeko tunelaren trazaduraren proiektzioa (nagusia eta ebakuazioa).

68. artikulua. Erabilera bereizgarriak. Lurzatien mailan, bizilekua izango da, hauetan izan ezik

1. Komunitate-ekipamendua.

1.1. Hezkuntza.

- Eskola kalea, 12 eta 14 (Ramón Bajo ikastetxea).
- Luis Aranburu Musika Eskola (Hedegile kalea, 106).
- Haurtzaro haur-eskola (Santa Maria kantoia, z/g).

1.2. Administrazioa.

- Goiuri jauregia (Aihotz plaza).
- Udaletxea (Espainia plaza, 1).
- Etxanobetarren etxea (Santa Maria kalea, 11).
- Errementari kalea, 96-98 (beheko solairuak).

1.3. Asistentziala.

- Hedegile kalea, 54 eta 56 (Aurora etxea handitzea).
- Hedegile kalea, 55 eta 57 (Aurora etxea, zainpeko apartamentuak).
- Hedegile kalea, 58 (Aurora etxea).
- Arkupeko ibilbidea, 11 (Arkupeko egoitza).
- San Pedroko pasabidea, 5 eta 7 (beheko solairuak), San Pedro zentro soziala.

1.4. Erlijiosoa.

- Santa Maria katedrala eta Santa Maria eliza.
- San Pedro eliza.
- San Migel eliza.
- San Bizente eliza.
- Gurutze Santuaren komentua.
- San Ildefonso kapera.

1.5. Kultura, elkarteak.

- Otxanda dorrea (Natura Zientzien Museoa).
- Farolen Etxea (Zapatagile, 35).
- Landatxoko gizarte-etxea (Santa Maria, 4).
- Montehermoso jauregia (Frai Zacarias Martinez kalea, 2).
- Garai bateko ur biltegia (Frai Zacarias Martinez kalea, Eskola kalea).
- Bendaña jauregia eta Aiztogile kalea, 54 bis eta Arkeologia Museo berria.
- Errementari kalea, 82 (Jesusen Zerbitzarien Fundatzailearen Museo-etxea).

1.6. Kultura - Erlijiosoa.

- 4. etxadiko eraikinak (Aiztogile kaleko 85.etik 103.era izan ezik, biak barne).
- Hedegile kalea, 116.
- Andatarren dorrea (Gobeo-Gebara-San Joan jauretzea).

1.7. Generikoa.

- Garai bateko musika-eskola eta arte eta lanbideen eskola (Eskola kalea, 10).
- Frai Zacarias Martínez kalea, 3 (garai bateko Irakasle Eskola).
- Hedegile kalea, 141 (Maturana-Berastegi jauregia, Fresnoko markesarena).
- San Bizente Paulekoaren kalea, 2 - 15. etxadia (garai bateko umezurtz-etxea).
- Aiztogile kaleko 85.etik 103.era, biak barne.

1.8. Askotarikoa.

- Errementari kalea, 30-32.

2. Bizilekua, ekipamendu toleratzen delarik.

- Hedegile kalea, 108 (osasun-zentroa).
- T etxadia.
- Aiztogile kalea, 24 (Sokaren etxea).
- Hedegile kalea, 33.
- Arkupeko ibilbidea, 10-20.
- Zapatari kalea, 33.

BABESTU BEHARREKO ONDASUNEN KATALOGOA
ESPAZIO LIBREEN KATALOGOA

2. Balio urbanistikoa.

Etxadia. Kokalekua.

Posta kalea.

Agirre Lehendakariaren kalea.

San Frantzisko aldapa.

San Frantzisko kalea.

Kanpokale Berria.

San Prudentzio Ikastetxeko kalea.

San Frantzisko Xabierkoaren kantoia.

Bueno Monreal kalea.

Antepara kalea.

Arriagako atea.

Harategi kantoia.

Ahate Iturri plaza.

Jesusen Zerbitzarien kalea.

Jauregi kalea.

Bakardade kantoia.

Probintzia plaza.

H etxadiaren plaza eta Errementari kaleko 24.eko espazio librea.


Diputazio kalea.
Errementari kalea.
Zapatari kalea.
Hedegile kalea.
Frai Zacarias Martinez kalea.
Goiuri kalea.
Santa Maria kalea.
Eskola kalea.
Txikita kalea.
Aiztogile kalea.
Pintore kalea.
Santo Domingo kalea.
Barnekale Berria.
San Bizente Paulekoaren kalea.
Barrenkalea.
Pedro Egaña kalea.
Anorbin kantoia.
Harategi kantoia.
Apaizgaitegiko kantoia.
Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen kalea.
Gasteiz kalea.
Arrieta kalea.
Santa Ana kantoia.
San Markos kantoia.
San Ildefonso kalea.
Santa Maria kantoia.
G. (178) Etxartea.
H. Etxartea.
I. Etxartea.
J. Etxartea.
K. Etxartea.
LL. Etxartea.
M. Etxartea.
N. Etxartea.
O. Etxartea.
P. Etxartea.

- R. Etxadiko barne-espazioa.
- R. Goiuri jauregiaren patioa.
- S. Hedegile kalea, 60.etik 96.era.
- S. Hedegile kaleko barne-espazioa, 98.etik 104.era.
- S. Harategi kantoiko 2.aren barne-espazioa.
- T. Etxadiko barne-espazioa.
- X. X etxadiko leizetxoek patioak.
- I. Montehermoso jauregiko espazio librea, Montehermoso jauregiaren patioa.
- II. Lorategiak.
 - 1. Baratzeak.
 - 2. Baratzeak.
 - 3. Baratzeak.
 - 6. Etxartea.
 - 7. Bendaña Jauregiko patioa eta Sotoa.
 - 8. Etxartea.
 - 9. Etxartea.
 - 10. Etxartea.
 - 11. Etxartea.
 - 12. Pintore kaleko sotoa, 78 zenbakitik 84 zenbakira.
- Gurutze Santuaren komentuko lorategia eta barne-espazioa (klaustroa).
- 13. Etxartea.
- 15. San Prudentzio Ikastetxeko kaleko gunea librea eta barne-klaustroa.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko maiatzaren 28an

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE

O-3 Catalogo de los espacios libres
O-3 Gune Libreen katalogoa




CATALOGO DE ESPACIOS LIBRES / A°.51 N.U.
GUNE LIBREEN KATALOGOA / N.U. 51 art.

- VALOR HISTORICO URBANISTICO MAXIMO
HIRIGINTZA BALIO HISTORIKO GORENA
- VALOR HISTORICO URBANISTICO
HIRIGINTZA BALIO HISTORIKOA
- ADAPTABLE
GUNE MOLDAGARRIA


FORMAS DE INTERVENCION CONSTRUCTIVA
ERAIKUNTZAKO ESKU-HARTZA MOTAK

- CONSERVACION / A°.54 N.U.
KONTSERBATZEA / nu.,54. art.
- REFORMA / A°.55 N.U.
- BERRITZEA / N.U., 55 art.
- REPOSICION / NUEVA IMPLANTACION / A°.56 N.U.
- BIRJARTZEA / BERRIRO JARTZEA / N.U., 56 art.
- ESPACIOS LIBRES PRIVADOS
GUNE LIBRE PRIBATUAK
- ESPACIOS LIBRES DE DOMINIO PUBLICO Y USO RESTRINGIDO
(CAÑOS MUNICIPALES)
- JABETZA PUBLICO ETA ERABILERA MURRIZTUKO GUNE LIBREAK
(UDAL ETXARTEAK)


O-4 Zonificación-Calificación pormenorizada
O-4 Zonifikazioa-Kalifikazio xehatua



SISTEMA EDIFICADO
SISTEMA ERAIKIA


	EQUIPAMIENTO EKIPAMENDUA	E.As	ASISTENCIAL	ASISTENTZIALA
		E.S	SANITARIO	OSASUNEKOA
		E.C	CULTURAL – ASOCIATIVO	KULTURA – ELKARTEAK
		E.E	EDUCATIVO	HEZKUNTZAKOA
		E.D	DEPORTIVO	KIROLETAKOA
		E.R	RELIGIOSO	ERLIJIOZKOA
		E.A	ADMINISTRATIVO	ADMINISTRAZIOKOA
		E.M	MULTIPLE	ANIZKUNA
		P.D.C	CULTURAL – RELIGIOSO	KULTURA – ERLIJOA
		E.Es	ESPECTACULOS	IKUSKIZUNETAKOA
		E.U	UNIVERSITARIO	UNIBERTSITATEKOA

O-8 sur - Ordenación de la edificación y de los espacios libres, Alineaciones y rasantes
 O-8 sur - Antolamenduaren zehaztapenak eraikuntzan eta gune libreetan, Lerrokadurak eta sestrak



PLANTAS AFECTADAS POR LA ALINEACION PROPUESTA
 PROPOSATUTAKO LERROKADURAK UKITUTAKO SOLAIRUAK

F.I.C. REVITALIZACION / RENOVACION
 OCE - ORE / ONE
 PTAS. A AMPLIAR
 PTAS. F. de O.



- LA EXPRESION DE ALTURAS DEL PLANO, ATIENDE A LA OCUPACION DE LAS DISTINTAS PLANTAS, INCLUYENDOSE LOS CASOS DE AQUELLAS PLANTAS OCUPADAS POR ENCIMA DE LA COTA DE ALERO Y/O CORNISA (BAJOCUBIERTA) QUE SE CORRESPONDEN CON LOS DATOS CATASTRALES DE LA FICHA URBANISTICA.

- EN CUALQUIER CASO, LA CONSOLIDACION DE ESTAS ULTIMAS PLANTAS, ATENDERA AL CUMPLIMIENTO DE LAS CONDICIONES DE LA SECCION 5ª DEL CAPITULO 1 DEL TITULO II Y CAPITULO 1 DEL TITULO III, DE LA NORMATIVA URBANISTICA DEL PRESENTE PLAN ESPECIAL, TANTO EN LO REFERENTE A LA HABITABILIDAD COMO A LAS FORMAS DE INTERVENCIÓN CONSTRUCTIVA DE CADA ORDENANZA DE AMPLIACION : ORE / OCE / ONE.

-PLANOAREN ALTUREN ADIERAZPENAK SOLAIRUEN OKUPAZIOA ISLATZEN DU, BAITA HEGALA ETA, EDO ERLAITZAREN GAINETIK OKUPATUTAKO SOLAIRUENA ERE (ESTALKIPEKO SOLAIRUAK), BETIERE HRIGINTZA-FITXA AGERI DEIREN KATASTRO-DATUEN ARABERA.

-EDONOLA ERE, AZKEN SOLAIRU HORIEK SENDOTZEKO LAKAK BAT ETORRIKO DIRA PLAN BEREZI HONEN HRIGINTZA-ARALETAKO II TITULUKO 1, KAPITULUKO 5, SEKZIOAN ETA III, TITULUKO 1, KAPITULUAN XEDATUTAKO BALDINTZEKIN, NOLA BIZIGARRITASUNARI DAGOKIONEAN, HALA ERAIKUNTZAKO ORDENANTZA BAKOITZEKO (ORE / OCE / ONE) ERAIKUNTZAKO ESKU-HARTZE MOTEI DAGOKIENEZ.


CATALOGO DE LA EDIFICACION
 ERAIKUNTZA-KATALOGOA

EDIFICIOS DE CARACTER AMBIENTAL / ELEMENTOS DE PROTECCION BASICA HISTORICOS
 (EDIFICIOS HISTORICOS)
PB-H INGURUMEN IZAERAKO ERAIKINAK / OINARRIZKO BABES ELEMENTUAK HISTORIKOAK
 (ERAIKIN HISTORIKOAK)

PROGRAMACION

AMBITOS DE ORDENACION Y GESTION (Ver Plano n°.11 y Fichas de Ambito)
 ANTOLAMENDU ETA KUDEAKETA EREMUAK (ikus 11. plano eta eremu-fitxak)

O-12 Propuestas de ordenación
O-12 Antolamendu proposamenak



(GRANDES LINEAS ESTRATEGICAS EN LAS DIFERENTES AREAS TEMATICAS)
(ILDO ESTRATEGIKO HANDIAK EKIPAMENDU MOTETAN)

C – SISTEMA DE EQUIPAMIENTOS
C – EKIPAMENDUEN SISTEMA

C5 – OTROS EQUIPAMIENTOS
C5 – BESTE EKIPAMENDU BATZUK

- E. As (ASISTENCIAL EN CORRERIA,55)
(ASISTENCIALA, HEDEGILE KALEA,55)
- E. M (MULTIPLE EN CORRERIA,141)
(ANIZKUNA, HEDEGILE KALEA,141)
- E. M (MULTIPLE EN HERRERIA,30-32)
(ANIZKUNA, ERREMENTARI KALEA,30-32)
- E. C (CULTURAL-ASOCIATIVO EN HERRERIA,82)
(KULTURA-ELKARTEAK, ERREMENTARI KALEA,82)